



EGOERA

Herralde demokratiko batek Justizia independente, inpartzial eta demokratiko batez hornituta egon behar du. Hori da Justizia benetako boteretzat hartzeko bide bakarra –kontrabotere, pertsona guztien eskubideak defendatzeko beharrezkoa denean–, bai eta herritarrek erantzun judizial eraginkorra jasotzea helburu izateko bide bakarra ere. Neurri drastikoak hartu behar dira pertsona guztiek justizia independentea eta eraginkorra modu berdinean jasotzeko daukaten eskubidea bermatzeko.

Justiziaren eremuan dauzkagun eskumenek murrizketa ugari daukate, eta «justiziaren administrazioa administratzer» mugatzen dira, hau da, oinarrizko kudeaketako zerbitzuetara. Eskubideak eta askatasunak baliatzeko eta babesteko sistema errektore moduan, ezin

dugu ahaztu justizia estatuaren zutabe edo oinarrizko egitura bat dela, eta gaurtik aurrera eraiki behar dugu. Epaille naturalaren irizpideari jarraikiz, eta erkidegoaren estrakzioari eta jurisdikzio-aginpideari dagokion tokiari loturik, euskal justizia-administrazio despolitizatua sortu behar da, modernoa, eraginkorra, euskalduna; euskal lurraldean egoitza duten epaitegiek eta auzitegiek epaituko dute, eta haiek epaitutakoa betearaziko. Hain zuzen, eremu horretako helburu maximoa jurisdikzio-ahalmen hori baliatzea litzateke, ordena ezberdinetan (ordena zibila, administrazio-ordena, zigor-ordena eta gizarte-ordena) euskal legeak beteta eta betearazita. Horietako batzuetan gutxi garatutako eskumenak dauzkagu eskuragarri; beste batzuetan, beharrezkoa da horiek apurka eskuratzen joateko mekanismoak gaitzea.

NEURRIAK

1

JUSTIZIA DESZENTRALIZATZEA.

Justizia egungo lurralde-eredura ezinbestean egokitzea, gutxienez oraindik ere emateke dagoen lehen urrats moduan, BJKNren eskumenak zabal deszentralizatzeko –adibidez, euskal instituzioek epaileak hautatzeko irizpideen ezarpenean parte-hartzea eta horiek metodo modernoagoak eta demokratikoagoak erabilia hautatzea– eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako berezko BJKN batean biltzeko.

2

EUSKALDUNTZEA. Euskal herritarren hizkuntza-eskubideen eraginkortasuna exijitzea, ameskeria hutsa baita Euskadiko Justizia Administrazioan, horretarako beharrezkoak eta ezinbestekoak diren eragile guztien benetako parte-hartze eraginkorrek. Saihestezina da Justizia Administrazioko lanpostu guztietan euskararen ezagutza eskatzea, Botere Judizialeko eta Fiskaltzako postuetan barne.

3

OFIZIOZKO TXANDA ERREFORMATZEA.

Nahitaezkoa da ofiziozko txandaren erreformari profesionalen elkargoekin batera heltzea, jurisdikzio-eremu guztietan bidezko epaia jasotzeko giza eskubidearen berme gisa –baldintzen eta ordainsarien egokitzapena–.

4

LANKIDETZA-JUSTIZIA BULTZATZEA.

Beharrezkoa da herritarren parte-hartzeari bultzada handiagoa ematea haien gatazkak bitartekaritza, bideratzea, lankidetzajustizia eta bestelako mekanismoak sakontzearen eta hedatzearen bidez konpon ditzaten

5

JUSTIZIAREN GARDENTASUNA.

Nahitaezkoa da gobernu onaren kontrolerako aurreikusitako mekanismoak Justizia Administrazioari luzatzea, bereziki herritarren ikuspegia eta iritzia ezagutzeko informazio-mekanismo tasatuen bidez haren jardura baloratzeari edo neurtzeari dagozkionak. Alderdi horiek guztiak aintzat hartuko dituen eta herritarrei urtero informazioa emango dien behatoki bat sortuko da.

6

EUSKADIKO LEGE-EGITURA ERAIKITZEA.

Erabakimenez sakondu beharra dago ordena zibilean existitzen diren eskumenetan, euskal Kode Zibila kodetzeko batzorde bat sustatuta. Eskumenoiko koherentzia eman behar zaie administrazio-ordenan, bertan euskal corpus juridiko bat ezartzearen bidez. Aldi berean, zigor- eta gizarte-ordenei dagokienez, eztabaida sakona bultzatu behar da eskumenak bere gain hartzeko moduari buruz. Gernikako Estatutuaren 14.1. artikulua interpretazio ireki batek eramango gintuzke Euskadiko jurisdikzio-organoen jarduketaren oinarri diren legegintzako eskumenak zabaltzera.

7

EUSKAL JUSTIZIA ADMINISTRAZIO BAT BULTZATZEA.

Halaber, beharrezkoa da euskal indar politikoekin itun bat lortzea eta sektoreko profesionalen aldeko iritzia biltzea epe ertainean ordena guztietan bide judiziala agortuko duen euskal instalazio judizial bat ezartzearen bideragarritasunari eta egokitasunari buruz. Aurrez ipini behar da Euskadiko epaileen eta magistratuen barne-antolamendua, jurisdikzio-funtzioaren egitura errektorea izanik, hark babestuko baitu bere kideen independentzia. Euskal Fiskaltza baten ahalmenak eskuratzeko bidea diseinatu beharra dago, eta hark babestuko du interes orokorra, independentziaren, legezketasunaren eta objektibotasunaren printzipioetan oinarrituta.

8

JUSTIZIAKO LANGILEAK EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO LANGILETZAT BEHIN BETIKO HARTZEA.

Kudeaketa, izapidetze eta laguntza judizialerako erreminten defentsan lan gehiago egin behar da, eta esandako zerbitzu-ematea defendatu behar da, eta ez parekatze-araubidean, baizik eta berdintasun-araubidean, euskal administrazio orokorreko gainerako funtzionarioekin, araubide horretan egon behar baitute sartuta

9

ERREGISTRO ZIBILEN EUSKAL ZERBITZUA.

Ahal den guztia egin behar da erregistro zibilen zerbitzuak pribatizatzea galarazteko; bide batez, aukera hau baliatu behar dugu euskal zerbitzu publiko bezala geure gain hartzeko. Erregistro horri dagozkio herritartasunarekin, auzotasunarekin, identitatearekin, egoera zibilararekin eta pertsonaren gainerako zirkunstantziekin lotutako inskripzioak eta publizitatea.

10

AUZITEGIKO MEDIKUNTZAKO EUSKAL ERAKUNDEA SUSTATZEA.

Gobernu-jardun tinko eta irmoak Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan bikaintasuna eta profesionaltasuna sustatu behar ditu, zerbitzu publiko, moderno eta eraginkor den aldetik, bere mende dituen langileen lan-baldintza duinak bermatuta.